



Arartekoaren 2019R-2098-18 Ebazpena, 2019ko maiatzaren 9koa. Horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna Sustatzeko Sailari gizarteratzeko laguntza bereziaren ezeste-espeditatea ikuska dezan gomendatzen zaio.

Aurrekariak

1. Herritar bat ez zegoen ados Bizkaiko Foru Aldundiak gizarteratzeko laguntza berezia ezestearekin eta, hori dela eta, Arartekoaren esku-hartzea eskatu zuen. Era berean, berak planteatutakoaren arabera, nahiz eta babesgabetasun egoeran dagoen adingabea izateagatik Umeen Zerbitzuak arreta eskaini dion, egoitzaren administrazio-baimenari buruzko eskaera ez zitzaion izapidetu, beraz, tutoretza amaitutakoan ez zuten halakorik.

Kexagilearen esanetan, Bizkaiko Foru Aldundiak tutoretza 2014. urtean onartu zuen (8998/2014 Foru Agindua), **fiskaltzaren dekretuaren** babesean. **Nolanahi ere, adina zehazteko prozedura egin ostean, jaioteguna 1999/10/23an kokatu zuen.**

Ondoren, erakunde honi jakinarazitakoarekin bat, **2016. urtean kexagileak Foruko Umeen Zerbitzuari familia-liburua aurkeztu zion eta bere jaioteguna hurrengo dela ikus daiteke: 1996/3/22.**

Dokumentazio honekin, 2016ko urriaren 17an Bizkaiko Probintzia Fiskaltzak 2013ko urriaren 30ean adina zehazteko aurreko dekretua aldatu zuen. Dekretu horretan, honako hau ezartzen da:

"No existiendo indicios de razones para dudar de la autenticidad de la documentación aportada lo que debemos entender a (...) como nacido el 13 de abril de 1994 y, por tanto, mayor de edad".

Hala eta guztiz ere, eskura dugun dokumentazioarekin, 1994ko apirilaren 13ko jaioteguna bere anaia nagusiarekin bat dator. Ondorioz, kexagileak alegatutakoari jarraiki, une horretan Bizkaiko Probintzia Fiskaltzak aurreko dekretua bere anaiaren jaiotegunaren datuetan oinarrituta aldatu zuen bere datuak erabili ordez. Aipatu den bezala,





familia-liburua eta, gero, pasaportea ikusirik, kexagilearen jaioteguna 1996ko martxoaren 22a da.

Aldi berean, adin-nagusitasunera heltzean, **2017ko azaroaren 16an**, Bilboko Udaleko oinarrizko gizarte-zerbitzuaren aldeko txostena aurkeztu zuen —izan ere, haurrak eta nerabeak zaindu eta babesteko Bizkaiko baliahideetan arreta eman zioten— eta **gizarteratzeko laguntza berezia eskatu zuen**. Dena den, 2017ko abenduaren 14ko 10657/2017 Foru Aginduaren bitartez, Bizkaiko Foru Aldundiak prestazio hori ukatzea erabaki zuen (espediente-zenbakia: PEFI SS AEIS 2017/000219), arrazoi hau zela tarteko:

“Eskabidearen datan, eskatzaileak ez du betetzen indarrean dagoen arautegiaren araberako gutxieneko edo/eta gehieneko adinari doakion beharkizuna”.

Kexagileak alegatu du ezin izan zuela zegokion epean aurkeztu foru-agindu horren aurkako berraztertze errekurtsorik, kalean, etxegabe, bizi zelako orduan.

2. Arestian azaldutakoa kontuan hartuta, Arartekoak Bizkaiko Foru Aldundiari eskatu zion kexagileak planteatutako gaien berri emateko.

Era berean, erakunde honek, aldez aurretik eta argiketen zain, hainbat gogoeta bidali zuen eta ez errepikatze ondoren idatziko dira.

3. Batetik, Gizarte Ekintzako Sailak txosten batez erantzun zion Arartekoari. Bertan honakoa adierazi zuen:

“Ahmed Mahdaneren babes-espedientea 2013ko urriaren 14an ireki zen (esp.: OFIC IJ PROT 2013/611), eta data horretan adingabeak esan zuen 1994ko apirilaren 13an jaio zela.

Berehalako arreta eman zitzaion, zeina azaroaren 6ko 59826/2013 Foru Aginduaren bidez formalizatu zen. Foru-agindu horren bidez, haren harrera Zornotza etxebizitzan formalizatu zen.





Dokumentaziorik ez zeukanez, eta eman zuen informazioaren arabera zeukan adina baino urte gutxiago zituela susmatuta, auzitegiko probak egin zizkioten, eta. haietan oinarrituta, 1999ko urriaren 23an jaio zela ondorioztatu zen.

Otsailaren 17ko 8998/2014 Foru Aginduaren bidez, Aldundiak bere gain hartu zuen adingabe horren tutoretza, kontuan hartuta auzitegiko proben arabeko jaioteguna jasotzen zuen fiskaltzaren dekretua.

Aintzat hartuta inkongruentzia hori, eta dokumentaziorik ez zegoenez, ezin izan zen lortu adingabearen pasaportearen haren herrialdeko kontsulatuan, ez baitzeukan probek zehaztutako adinarekin bat zetorren dokumentaziorik.

2014ko apirilean, Zabaloetxe egoitza-zentrora eraman zuten, eta 2016ko martxoan, Itsas etxea unitate erdiautonomora aldatu. 2016an, dokumentazio osotu bat agertu zen, adingabearen pasaportearen lortzeko aukera emango zukeena. Dokumentazio horren arabera, Ahmed Mahdane 1996ko martxoaren 22an jaio zen. (...)

Gaur egun adin nagusikoa bide da, berak aurkeztu duen dokumentazioaren arabera, beraz, administrazio honek ezin du inolako dokumentaziorik izapidetu, berak egin behar baitu.

Dena den, dokumentazio hori Fiskaltzari bidali zitzaion, eta hura aztertu ondoren ontzat eman zen; ondorioz, aldatu egin zen 2013ko urriaren 30eko aurreko dekretua.

2016ko uztailaren 9an, Fiskaltza izapide hori egiten ari zela, gazteak bere borondatez utzi zuen zentroa.

Laburbilduta, hasiera batean ezin izan zen egoitza baimena izapidetu, ez baitzegoen pasaportearen Marokoko Kontsuletxean lortzeko aukera emango zuen dokumentaziorik, eta, beharrezkoa zen dokumentazioa aurkeztu zenean, dokumentazio horrek gaztea adin nagusikoa zela egiaztatzen zuen. Beraz, administrazio honek ezin izan zuen inolako izapiderik egin, berari baitzegokion edozein izapide kudeatzea".





Pasaportea zentrotik irten zenean izapidetu zen, hain zuzen, 2017/06/16an eta 2016an aurkeztutako dokumentazioaren jaioteguna (1996/03/22) onartzen du. Egoitzaren baimen-eskaera bakarrik pasaportea lortu ondoren aurkeztu ahal izan zen, ezinbesteko dokumentua baita hori.

4. Bestalde, gizarteratzeko laguntza berezia ukatzeari dagokionez, Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak Arartekoari erantzun dio eta, xede horrez, Gizarteratzeko Zerbitzuaren Burutzak txostena egin du. Hala dio:

“Eskuan daukagun dokumentazioko eskatzailearen jaiotza-daten arteko bateraezintasun hori kontuan hartuta eta, aldi berean, kontuan hartuta jasota dagoela interesduna 1994ko apirilaren 13an jaio zela ezartzen duen Probintziako Fiskaltzaren ebazpen irmoa dagoela. abenduaren 14ko 10657/2017 Foru Aginduaren bidez ezetsi egin zitzaion GILBren eskaera.

Ezestearen arrazoia eskaera egin zuen datan interesdunak 23 urte Beteta zituela da, hau da, ez zuela gizarte inklusiorako laguntza berezia arautzen duen martxoaren 22ko 60/2011 Dekretuaren 6. artikulua eskatzen duen adinaren beharkizuna betetzen (18 urtetik gorakoa eta 23 urtetik beherakoa izatea)”.

Ondoren, kexagilearen dokumentazioan ageri diren jaiotegunen kontraesanari buruz, fiskaltzak adina zehazteko emandako dekretuaren behin-behinekotasun ondorioen inguruan Bizkaiko Foru Aldundia Arartekoak jakinarazitako gogoetekin ados ez dago. Ildo horri eutsiz, honakoa baieztatu du:

“Kasu honetan eskatzaileak indarreko pasaportea aurkeztu zuen; agiri horretan jasota zegoen jaiotza-data 1996/03/22 zen; dena dela, ostean informazio hori Probintziako Fiskaltzaren Dekretu baten bidez ezeztatu zen; Dekretu horren arabera eskatzailearen jaiotza-data zehaztu zen eta hori izan zen eskaera ebazteko Foru Agindua jaulkitzeko oinarria”.





Dena dela, Inklusioa Sustatzeko Zerbitzuak hau onartzen du:

"esan daiteke ematen duela akatsa egon daitekeela Bizkaiko Probintziako Fiskaltzaren 2016ko urriaren 17ko Dekretuan, zehatzago esanda dekretuari erantsita ematen den dokumentazioan azaltzen diren anai-arreben identifikazioari dagokionez".

Hala ere, beste hau gehitu zuen:

"Horrela aukera legoke horri buruzko berri emateko Bizkaiko Probintziako Fiskaltzari, hala denean, oker hori zuzen dezaten eta, horrela egin nahi badu, interesdunak berraztertzeko aparteko errekurtsua aurkez dezan".

Azkenik, BFAk azpimarratzen du eskatzaileak errekurtsorearen fasean ez zuela garaiz alegaziorik jarri eta honakoa adierazten du:

"Interesdunaren egoera administratiboak eta etxebizitzaren arloko egoerak ez du esan nahi alegazioak epeen barruan aurkezteko obligaziotik eta legez ezarrita dauden beharkizunak betetzetik salbuetsita dagoenik".

5. Azkenik, kexa-espeditente hau izapidetzen ari den bitartean, Arartekoak ezagutu du kexagileak gizarteratzeko laguntza berezia berriz eskatu ostean, Bizkaiko Foru Aldundiak 2019ko urtarrilaren 18tik prestazioa ematea erabaki duela. Hilean 346,50 euro izango dira eta ondorea 2019/2/1etik 2019/3/31ra luzatuko da.
6. Azaldutako aurrekarietan oinarrituz, eta beharrezkoak diren egitate nahiz oinarriak daudela iritzita, honako gogoeta hauek egiten dira:

Gogoetak

1. Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 22ko 60/2011 Dekretuaren (gizarteratzeko laguntza berezia arautzen duena) –207/2011 Foru Dekretuak emandako bertsioan— 6. artikuluan, **gizarteratzeko laguntza bereziaren titular izateko betekizunak** ezartzen dira.





Adinaren betekizunari dagokionez, arau orokorrak dio, gizarteratzeko laguntza bereziaren titular izateko, eskatzaileak 18 urte baino gehiago eta 23 baino gutxiago izan behar duela, betekizunetako bat baita hura eskatzen den unean diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubiderik ez izatea gutxieneko adinaren betekizuna ez betetzeagatik, alegia, 23 urte, Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko Legearen (18/2008, abenduaren 23koa) 16.d) artikuluekin bat etorriz.

Espedientean dagoen dokumentaziotik, Arartekoak egiaztatu du **kexagileak pasaporteaz zuela gizarteratzeko laguntza berezia eskatu zuenean** eta une horretan 21 urte zituela. Fiskaltzak adina zehazteko bigarren dekretuan ageri den jaiotegunari erreparatuz, ordea, kexagileak 23 urte baino gehiago zituen eta horretan oinarritu zen Bizkaiko Foru Aldundia gizarteratzeko laguntza berezia ezesteko. Adina zehazteko bigarren dekretuan azaltzen den jaioteguna bere anaiari dagokio.

2. Orain adierazitakoa alde batera utzita, egokia dirudi errepikatzea **adina ezartzea helburu duen fiskaltzaren dekretuaren ondorioak oso behin-behinekoak direla**. Horren berri eman beharko litzakete dekretu horretan, ez delako ukitutako pertsonaren adinari buruzko behin betiko ebazpen bat, eta, hortaz, beste proba osagarri batzuk egin daitezkeelako beste prozedura batzuen baitan. Halaber, **dekretu hori jaulkitzen da ez dagoenean beste datu fidagarririk adingabearen adinaren berri ematen duenik**. Kexagileak pasaporteaz zuen eta egiazkotasuna ez dago zalantzan. Nolanahi ere, **espedientean beste baliozko dokumentu batzuk zeuden eta adina zehazteko dekretuan azaldutakoarekiko jaiotegun ezberdina egiaztatzen zuten**.

Ilido horri jarraiki, Auzitegi Goreneko 2014ko irailaren 24ko epaiak (280/2013 Errekurtsoa) bere iritzia adierazi zuen eta proba medikoak egin ondoren, adina zehazteko dekretuaren aldean pasaportearen baliozkotasuna aztertu zuen. Hark honakoa zioen: *“El pasaporte es un documento con validez internacional expedido por las autoridades del país de origen o procedencia de su titular”* (FJ 2), que constituye *“prueba plena de la fecha de su nacimiento”* (FJ 1).

Ministerio Fiskalak esku hartu behar du dokumenturik ez duen pertsona atzeritarraren adingabetasuna segurtasunez definitu ezin daitekeenean





(atzerritarren eskubide eta eskakizunei buruzko lege organikoaren 35. artikulua eta 557/2011 Errege Dekretuaren, apirilaren 20koan, garatzen duen araudia onartzen duenaren, 190.1. artikulua). Izan ere, bi horiek Ministerio Fiskalak parte hartzea aurrez ikusten dute. Ahalmen horiek Ministerio Fiskalari buruzko Estatutu Organikoak 5. artikuluan xedatutako aurreikuspenekin bat erabiltzen ditu, azkeneko idatz-zatian (Ministerio Fiskalari buruzko Estatutu Organikoa arautzeko maiatzaren 26ko 14/2003 Legeak emandako idazkeraren arabera) hurrengo azaltzen duen neurrian: *"también podrá el Fiscal incoar diligencias preprocesales encaminadas a facilitar el ejercicio de las demás funciones que el ordenamiento jurídico le atribuye"*.

Erakunde honek lehendik adierazi du bakarrik datozen adingabeen eta gazteen adina zehazteko fiskaltzaren dekretuen inguruko behin-behinekotasunari buruz 5/2013 Gomendio Orokorrean, ekainaren 17koan¹, "bakarrik dauden adingabe/gazte atzerritarren arreta bermatzearen" ingurukoan:

"Aipatu dekretuak adingabearen adina zehaztu behar du, gutxi gorabehera eta dauzkan froga elementuen arabera. Dekretu horren ondorioak guztiz behin-behinekoak izango dira, eta bertan jaso behar litzateke hori, ez baita pertsona horren adinari buruzko behin betiko ebazpena, beste prozedura batzuk egiterakoan azterketa osagarriak egin dakizkiokelako. Hala, osasun azterketa zehatzagoak edo haren adinari buruzko beste ikerketa egintza batzuk egin litezke.

[...] Adingabetasuna adierazten duten nortasun agiriak daudenean ere egiten dira azterketa horiek, agiri horien egiazkotasunari buruzko arrazoizko zalantzak badaude edo ezaugarri fisikoen arabera adinduna dela ematen badu."

lido horri jarraiki, espedientean ageri diren datuen babesean, **pasaportearen egiazkotasuna edo edukia zalantzan jartzen duen arrazoizko aztarnarik ez dago**, beraz, eskura dagoenetik (kasu honetan 2016tik) erabat baliozkotzat jo behar da, jurisprudentziari buruzko doktrina aplikatu ostean.

¹ Honetan eskuragarri: www.ararteko.eus



3. Laburbilduz, erakunde honen iritziz, gizarteratzeko laguntza berezia eskatu zuenean, kexagileak laguntza jasotzeko araudian xedatutako baldintza guztiak betetzen zituen. **Bizkaiko Foru Aldundiak gizarteratzeko laguntza bereziaren eskaera ebazteko orduan, pasaporteaz azaltzen den jaioteguna kontuan hartu beharko luke, bere balioak adina zehazteko fiskaltzaren behin-behineko dekretuaren gainean lehentasuna duen neurrian.**

Azaldutako guztia ikusirik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 11 b) artikuluan xedatutakoari jarraiki, Arartekoak Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarteratzea eta berdintasuna Sustatzeko Sailari honako gomendio hau egiten dio:

GOMENDIOA

10657/2017 Foru Agindua, 2017ko abenduaren 14koa, kexagileari gizarteratzeko laguntza bereziaren prestazioari buruzko eskubidea ezesten ziona, ondorerik gabe uztea, eskaeraren unean pasaporteaz zehazten zen jaiotegunaren arabera adinaren baldintza betetzen baitzuen.

